

Konrado Mugertza jn.
Iosu Gangoiti jn.
Javier Del Campo jn.
Miren Izagirre and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

07/12 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2007ko irailaren 13ko saiora bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Osoko Bilkura horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako eraikin eta instalazio publikoak ikastetxe horien urteko programan jasota ez dauden jardueretarako erabiltzea arautzen duen Dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

AURREKARIAK

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, 112. artikuluan arautzen du hezkuntza administrazioei dagokiela *“ikastetxeen eta haien ingurunearen arteko harremanak erraztea”*. Bestalde, Hamabosgarren Xedapen Gehigarriko bigarren atalean zehazten du haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoetako eraikinak *“ez direla erabiliko beste zerbitzu edo xede batzuetarako kasuan kasuko hezkuntza administrazioak lehenik horretarako baimenik eman ezean”*, eta seigarren atalean honela dio: *“hezkuntza administrazioei dagokie zehaztea zein prozeduraren arabera erabili ahal izango dituzten udalek haien mendeko ikastetxeak eskola orduetatik kanpo, hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloko beste jardueretarako. Erabilera horrek ikastetxe horien programazioak ezarritako beharren mugak baino ez ditu izango”*. Azkenik, Hamabosgarren Xedapen Gehigarriko zazpigarren atalean hauxe zehazten da: *“hezkuntza, kirol eta udal administrazioek lankidetzan jardungo dute ikastetxeetako edo udalerrietako kirol instalazioen erabilera bikoitza posible egingo duten prozedurak ezartzeko”*.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 16ko 222/2001 Dekretuak 22. artikuluko g) idatz zatian zehazten du Hezkuntzako Lurralde Ordezkarrien egitekoa dela hau: *“Norbanakoek edo Sailaren menpe ez dauden erakundeek sustatuta unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan edota Sailaren gainontzeko lokaletan nolabaiteko jarduerarik antolatzen bada, horren jakitun egongo da eta, hala badagokio, berak emango ditu baimenak”*.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko urtarrilaren 22an hartutako akordioak Oinarriak finkatu zituen herri administrazioei edo hauetako erakundeei Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako instalazioak erabiltzeko baimena emateko.

EDUKIA

Dekretu proiektu honek 12 artikulua, 2 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen ditu.

1. artikulua Dekretuaren helburua zehazten du eta 2.ak burutuko diren jardueren ezaugarriak.

3. artikulua erabiliko diren instalazioak zehazten ditu. 4. artikulua lehentasunak finkatzen ditu jarduera bat baino gehiago batera gertatzen direnerako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako.

5. artikulua erantzukizunen erregimena finkatzen du. 6. artikulua instalazioak erabiltzeagatik sortutako gastuen ordainketari eta konpentsazio ekonomikoari buruzkoa da.

7. artikulua eskaera eta baimenetarako ohiko prozedura finkatzen du eta 8. artikulua prozedura espezifikoa arautzen ditu.

9. artikulua instalazioa erabiltzeko eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak zehazten ditu. 10. artikulua baimena bertan behera uzteko aukera jasotzen du eta 11.ak baimena luzatzeko aukera. 12. artikulua helegiteak arautzen ditu.

Lehen xedapen gehigarriak zehazten du hauteskunde-ekitaldiak egiteko erabilera espezifiko arautuko dela. Bigarren xedapen gehigarriak adierazten du Dekretu hau ez dela aplikatuko arrisku larri eta hondamendi egoera jakin batzuetan.

Xedapen Indargabetzaileak Dekretu honetan ezarritakoaren kontra dauden maila berdineko edo apalagoko arauak indarrrik gabe uzten ditu.

Lehen azken xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta Bigarrenak araua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Aztergai dugun Dekretu proiektu honek ikastetxe publikoetako instalazioak Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) jasotzen ez diren jardueretarako erabiltzea arautzen du, ikastetxeak beren ingurunera zabalik egon daitezen eta haien baliabideak alaitu hobekien erabil daitezten. Euskadiko Eskola Kontseilua bat dator bi helburu horiekin, hortaz, ongi deritza neurri hau hartzeari, kontuan izanik bi alde dituela, bata antolakuntzarekin lotutakoa eta bestea ekonomikoa.

Antolakuntza aldetik, hiru eragile daude Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan (pertsonek edo erakunde eskatzaileak, ikastetxea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Saila, instalazioen titularra den aldetik), eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, berriz, beste eragile bat dago, alegia, kasuan kasuko udala, titularra baita.

Dekretu proiektuaren 6. artikulua aurreikusten du ikastetxeek konpentsazio ekonomikoak jaso ditzaketela sortutako gastu edo eragozpenengatik, eta horretan datza alde ekonomikoa.

Proiektuaren atarikoan esaten da Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan (LOE) zehaztutako printzipioen eta antolaketa prozeduren arabera dela (112. artikulua eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarria), baina ez dira behin ere aipatzen eduki honetan eragina duten beste xedapen ekonomikoak. Horrela, ez du kontuan hartzen LOE Legearen 127. artikuluko h) idatz zatian ikastetxeko Eskola Kontseiluari ematen zaion esku-mena: "... bitarteko osagarriak lortzeko bidea onartzea 122.3. artikuluan zehaztutakoaren arabera", eta honek ahalmena ematen die ikastetxe publikoei "bitarteko osagarriak lortzeko, Eskola Kontseiluak hala onartu ondoren, hezkuntza administrazioek zehaztutakoaren arabera".

Dekretu proiektu honek 6. artikuluan planteatzen duen prozedura ekonomikoak bi jarduera biltzen ditu: lehenik, Sailak Agindu bat eman behar du konpentsazioaren zenbatekoa zehazteko erabiliko diren parametroak ezartzeko, eta bigarrenik, zenbateko hori ikastetxeko Zuzendaritzak finkatu behar du parametro horien arabera. Egitekoen banaketa honetan Eskola Kontseiluaren esku hartzea falta da, hortaz, Dekretuan esku hartze hori jasotzeko eskatzen dugu.

Administrazioak emandako bitartekoez gain, ikastetxeek beste batzuk sortzeko aukera izateak eraginkortasuna hobetzen laguntzen du eta berez positiboa da, zeren eta finantziarioa handituz gero, handitze hori apala bada ere, jarduera batzuk –bestela behar bada ezin burutu zitezkeenak- hobetu eta handitzeko aukera ematen baitu. Baina arrisku bat jartzen du mahai gainean, alegia, baliteke bitarteko horiek azpiegitura edo zerbitzu onenak dituzten ikastetxeen esku edota baliabide horiek urriak diren inguruneetan kokatutako ikastetxeen esku geratzea bakarrik. Kontseiluaren iritzian, berdintasun politika bat gauzatzeko aldera, administrazio publikoek bitarteko gehiago erabili behar dituzte ingurune sozioekonomiko behartsuetan kokatutako ikastetxeentzat, beraz, finantziario bide osagarri horren emaitza kontuan izan beharko da ikastetxe bakoitzeko mantentze eta funtzionamendu gastuetarako diru-kopurua zehazterakoan.

Antolakuntza aldetik, berriz, arau honek behar adina berme eskaintzen du jarduera horien izaera hezkuntza edo kulturaren ingurukoa izango dela ziurtatzeko eta ikastetxeko ohiko jarduerak lehentasuna izango dutela zehazterakoan. Dena dela, beste xehetasun batzuk ere badira:

- Epeei erreparatuta, 7.1.d) eta 7.2.d) artikuluetan 3 eguneko epea finkatzen da baimenaren eta ekitaldiko dataren artean, eta laburregia iruditzen zaigu. Izan ere, eskatzaileak 20 eguneko aurretiaz egin behar dio eskaera ikastetxeko Zuzendaritzari, eta honek 3 egun ditu Administrazioari igortzeko. Hortaz, zentzuzkoa iru-

ditzen zaigu Administrazioak dituen 14 egun horiek laburtzea eta eskatzaileak denbora tarte handiagoa izatea programatutako jarduera hori burutu daitekeen ala ez jakiteko.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, berriz, erabakia Udalak hartzen du, eta Dekretu honek 7.2.d) atalaren amaieran esaten du erakunde horrek erantzuna eman ezean ulertu behar dela ez duela eskaera onartu. Kontuan izan behar da tramitea Udaleraino iristeko, aurretiaz Lurralde Ordezkariak aldeko iritzia eman behar izan duela, eta lehenago ikastetxeko Zuzendaritzak ere ontzat eman behar izan duela. Gauzak horrela, eta legeek kontrakoa zehazten ez duten bitartean, Udalak erantzun ezean egokiago iruditzen zaigu ulertzea eskaera onartu duela, ezen ez atzera bota duela.

Gauza bera esan behar genuke Bigarren Hezkuntzaren kasuan, beraz, kendu behar litzateke 7.1.d) paragrafoko azken esaldia: “Erantzunik egon ezean ulertu behar da eskaera ez dela onartu”, baliorik gabe uzten baitu Lurralde Ordezkaria eskaerari buruzko ebazpena ematera behartzen duen araua. Arauan erantzun eza jasotzen bada, aurreko kasuan bezala izan dadila, eskatzailearen eskubidea bermatzeko, alegia, betiere ikastetxearen oniritzia jaso badu.

- 9.1.a) artikuluan aipatzen da eskatzaileak “ikastetxeko langileen beharra” zehaztu behar duela, eta hori ez dago argi. Kontzeptu hori bete beharreko eginkizun zehaztutara mugatu behar litzateke, hau da, instalazioak irekitzea eta ixtea, besterik ez, zeren eta, programatutako jarduera gauzatzeaz aparte, hori eskatzailearen eginbeharra delarik, 9.1.c) idatz zatian zehaztuta baitago eskatzaileak hartu behar dituela erabilitako instalazioak zaindu, mantendu eta garbitzeko neurriak. Horrenbestez, uste dugu mugatu behar litzatekeela “ikastetxeko langileen beharra” kontzeptua.

Testua hobeki ulertze aldera, ñabardura batzuk egin nahi ditugu. 2. artikuluan, egingo diren jardueren ezaugarrien barruan, jasotzen badira ere, ez legoke soberan ezaugarri horiek zehaztea geroago bi garapenetan, zehazki:

- 4.1.a) eta 4.2.a) atalen amaieran ondoko hau erantsi behar litzateke “eta Ikastetxeko Urteko Planean jasota ez daudenak”, izan ere, lehenago aztertu dugun 2. artikuluko 2. atalak aipatzen baitu, beraz, horrela geratuko litzateke: “lehenik, ikastetxearekin berarekin lotutako pertsonen eta elkarteek antolatutakoak, esate baterako, ikasleen elkarteek, gurasoen elkarteek, ikastetxeko ikasleen kirol edo kultur taldeek, eta bestek antolatutakoak, eta Ikastetxeko Urteko Planean jasota ez daudenak”. Hartara, gaztelaniazko bertsioan “aiten edo amen elkarteak” dio eta horren ordean “aita-amen elkarteak” edo “senideen elkarteak” jarri behar litzateke.
- 11.1. paragrafoaren hasieran, murrizketa hau egiten da: “Dekretu honetako 2. artikuluko 5. idatz zatian zehaztutakoari kalterik egin gabe...”. Murrizketa horrek eskaera urtero berri beharra ezartzen duenez salbuespenik gabe, testua hobeki uler liteke hasieratik hala zehaztuz gero: “Baldin ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoko instalazioak erabiltzeko baimena duen pertsona fisikoak edo juridikoak baimena luzatzea beharrezkotzat jotzen badu, lehen egin

zen baldintza berdinetan jarraitzeko, behar beste aurrerapenez eskatuko du luzapen hori, ikastetxeko Zuzendaritzari aurkeztutako idatzi baten bitartez, eta ez da beste agiririk behar izango”.

Amaitzeko errepikatutako gauza bat antzeman dugu: 4.3. atalean, 2.2. ataleko gauza bera agertzen da, beraz, kendu beharko litzateke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko irailaren 14a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.